



Zenbat aldiz gertatu ote zaigu elkarrizketa bat euskaraz egin nahi izatea eta gazteleraz hitz egiten bukatu izana?

Zergatik sentitzen gara deseroso horrelako egoeren aurrean?

Zergatik gertatzen zaizkigu horrelakoak?

Nola konpondu ditzakegu egoera horiek?

Gure esku al dago konponbidea bilatzea?



**TELP tailerlean duzu erantzuna.  
Etorri eta saia gaitzen!**



---

**Antolatzailea:**

---



---

[www.emun.com](http://www.emun.com)  
[emun@emun.com](mailto:emun@emun.com)


---

Uriburu 9, behea (227 p.ku.)  
20500 ARRASATE  
Tel:943 71 18 47

Martin Ugalde Kultur Parkea  
20140 ANDOAIN

Galtzapalea 7, behea  
31013 BERRIOZAR

---



**TELP  
tailerrak**

**Euskaraz EROSO,  
nonahi eta noiznahi  
SENTITZEKO.**

## Zer da TELP tailerra?

Zenbatetan gertatu zaizu denda, erakunde edo beste edozein tokitara joan eta euskaraz hitz egiten hasterakoan, beste pertsonak euskararik ez dakiela esan eta deseroso sentitzea? Edo alderantziz, norbaitekin gazteleraz hitz egiten hasi eta euskaraz dakienez ondoren konturatzea?

Nola lortu dezakezu egoera horien aurrean eroso sentitu eta naturaltasunez jokatzea?

TELP (Taller d'Espai Lingüístic Personal) tailerrari esker horrelako egoeretan dugun jokabideaz ohartuko gara eta nola jokatu behar dugun ikasiko duzu. Hobetzeko ditugun ohituretan eragiteko baliabideak eskaintzen dizkizugu, ohitura eta esperientzia propioei arreta berezia jarritz. Izan ere, inguruko hizkuntza ohiturak euskalduntzeko, lehenik norberarenak aztertu eta zuzendu beharko ditugu.

Azken finean, euskaraz mintzatzeak ez digu zalantzarik sortu behar eta modu erosoan jarduteko aukera gure esku dagoela argi izan behar dugu.

TELP tailerrak azken batean **ez dizu ez dakizunik erakutsiko**; TELPak, duzun ezagutza beste modu batera antolatzen erakutsiko dizu. Begirada berri bat zeureganatzen lagunduko dizu eta zure hobetzeko aukerak ikusteko lagungarri izango zaizu.

Egin nahi duzun hori nola egin erakutsiko dizu, pauso txikiak emanez, oso urrutira hel zaitezten



## Helburua eta hartzaileak

### Helburuak:

- Euskaraz egiteari lotutako deserosotasuna murriztea.
- Hizkuntza jokabide asertiboari esker gusturago egotea.
- Baliabide gehiago sortzea.

### Hartzaileak:

Hartzaile potentzialak euskaraz egiteko gogoan duten hiztunak (hizkuntza kontzientziadunak) dira.

Tailer honetan azaldutako teknikak oso baliagarriak dira esparru desberdinetako hiztunentzat: norbanakoak, irakasleak, administrazio teknikariak, enpresetako langileak, etab.

## Edukiak

- Oinarri teorikoak
- Ikuspegi estrategikoa
- Baliabideak
- Konbergentzia mailak
- Komunikazio asertiboa

## Metodologia

- Parte hartzailea
- Praktikan oinarritua
- Egokitua
- Malgua